

## URUBIEK PARKEA BIZIRIK-EKO HABIA-KUTXETAN BERRIRO ERE KUMATU DUTE

Urubiek, Parkea Bizirik "kukulunbera"-ko habia-kutxetan, berriro ere kumatu dute. Hemen, Ulian (Donostia). Itzela. Ez dute urtero lortzen. Beren errunaldiak urriak dira. Batzuetan, baldarrak dira, beren arrautzak zapaldu eta hautsi egiten dituzte. Jaiotzarik badago eta janaria urria bada, goseak txitak azaldatzen ditu; anai-arrebek elkarri mokoka egiten diote, elkar irentsi arte. Horrela, horietakoren baten biziraupena ziurtatzen da. Kanibalismoa du izena. Janaria ugaria bada, habia-kutxa arratoi eta sagu zatikatuen hiltegi bihurtzen da. Izter bat hemen, heste bat han. Publiko guztientzat egokia ez den errealitatea. Horrelakoa da errealitatea, natura da.

30 kutxa eta 30 urteko jarduera etengabea. 1990 - 2020. Antolatu, eraiki, margotu, zintzilikatu, ikuskatu, oharrak idatzi, argazkiak atera, garbitu, konpondu, zenbatu, adarren bat usteldu bada kokapena aldatu, landa-koaderno digitala idatzi. Inoiz ez da ikasten bukatzen.

7200 ikuskapen 30 urtetan. Jaiotza asko eta asko eta, horietatik, 2307 (2020ko udaberrikoak kontutan hartu gabe) hazi, jauzi egin eta kanpoko mundura hegaldatu dira. 2307 hegazti. Kaskabeltzak, amilotxak, garrapoak, urubiak... Ikaragarria.

Batzuek sagardotegietan gozarazten gaituzten sagarrondoan izurriteak geldiarazten dituzte, beste batzuk gure narriadura klimatikoa moteltzen duten basoen bizkarroiez elikatzen dira, beste batzuek karraskarien populazioa hain azkar haz ez dadin laguntzen dute...

Gizakien gauzek funtziona dezaten egiten duten ekarpena amaigabea da.

Konfinamenduaren ondorioz, datu garrantzitsuak galdu dira. Deseskaladak aurrera egin ahala, eta ahal den neurrian, lanean jarraituko dugu eta izandako parentesiak batez bestekoen eta estimazioen bidez osatuko ditugu. Boluntarioak baino, ez gara.

Gaua da. Ilargia agertu eta urubia esnatu egin da.

Egian, 2020ko maiatzak 7

Parkea Bizirik "kukulunbera"



Hegazti intsektujale eta harrapari gautarrentzako habia-kutxa lantegia  
1990tik datuak biltzen eta zabaltzen

### 13. HABIA-KUTXA (Ulia)

XIII. Taula: Donostiako emaitzak (Ulia mendia). 2018

Kutxa zenbakia	Data	Habia-kutxaren eredua: Kaskabeltzak (ICONA)
13	2018.01.22	Hutsik eta garbi
	2018.04.17	Amilotx edo pinu-kaskabeltzaren 2 arrautza
	2018.05.02	Amilotx urdinen 5 arrautza 10 egunez inkubatuta
	2018.05.18	14 eguneko 4 txita eta ernaldu gabeko arrautza
	2018.05.27	Habia zaharra. Garbiketa
	2018.06.14	Hutsik
	2018.07.04	Hutsik



Amilotx urdina habia-kutxan  
Herrerillo común en la caja-nido  
Argazkia: Joseba Gurutz de Vicente

Joseba Gurutz de Vicente

Ulia (Donostia)

Landa koaderno